ZESTOAKO UDALA

ZESTOAKO ZEMENTUGINTZAREN PAISAIAREN EKINTZA PLANA IDAZTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOAK

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN DEL PAISAJE DEL CEMENTO EN ZESTOA

XEDEA

Kontratuaren xedea da Zestoako zementugintzaren Paisaiaren Ekintza Plana (PEP) idaztea. Zestoako Udalak, Paisaiaren Ekintza Planaren bitartez, zementugintzari lotutako paisaia industrial eta kulturala kontserbatzeko ekintzak bultzatu eta ondare hori balioan jartzea du xede. Ondare ikuspegitik balio handiko eremua da baina orain arte baztertuta egon da eta, zenbait kasutan, oso kaltetua izan da. Zementu naturalaren (iraulika) industria sektore horrek, bere indarraldia XIX. mende erdialdetik XX. mende erdialdera arte izan zuenak, hiru atal eta eremu geografiko hartzen zituen: harrobiak (Iraeta, Ibaiñarrieta), minak (Ertxiña) eta zementu lantegiak (nagusiki, Iraeta, Agote, Arroa eta Bedua).

Paisaiaren Ekintza Plan horren erredakzioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduan, 2019ko ekainaren 18koan, oinarritzen da.

OBJETO

El objeto de la contratación es la redacción de un Plan de Acción del Paisaje (PAP) del cemento en Zestoa. El Ayuntamiento de Zestoa pretende, mediante el Plan de Acción del Paisaje, impulsar acciones para la conservación del paisaje industrial y cultural asociado a la industria del cemento, así como su puesta en valor. Desde el punto de vista patrimonial, es un espacio de gran valor pero hasta el momento ha sido olvidado, y en algunos casos muy deteriorado. La industria del cemento natural (cal hidráulica), que tuvo su auge desde mediados del XIX hasta mediados del XX, englobaba tres actividades y áreas geográficas: canteras (Iraeta, Ibañarrieta), minas (Ertxiña) y las fábricas de cemento (principalmente, Iraeta, Agote, Arroa y Bedua).

La redacción de este Plan de Acción del Paisaje se fundamenta en la orden de 18 de junio 2019, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

ARAUDIA

Estatuan zein Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen legeriaren arabera egingo da Paisaiaren Ekintza Plana. Nolanahi ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, paisaia arloari dagokionez gerta daitekeen edozein lege aldaketa kontuan hartu beharko da planean, eta dokumentua egokitu egin beharko da Zestoako Udalak emango dituen irizpideen arabera. Besteak beste, honako legeria hartuko da oinarritzat:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa,

NORMATIVA

El Plan de Acción del Paisaje se realizará con sujeción a la legislación vigente, tanto estatal como autonómica en materia de régimen local. Cualquier modificación de la legislación vigente en materia de paisaje, que se produzca durante la ejecución del contrato deberá ser tenida en cuenta en la elaboración del plan, adaptando éste a dicha modificación de conformidad con las instrucciones del Ayuntamiento de Zestoa. Entre otras, se tendrá en cuenta la siguiente normativa:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local.
- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.
- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Pa-

Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa. Dekretuak, besteak beste, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko bitartekoak zerrendatzen ditu: a) Paisaiaren katalogoak. b) Paisaiaren zehaztapenak. c) Paisaiaren ekintza-planak. d) Paisaian integratzearen azterlanak.

Paisaiaren Ekintza Planak kudeaketa-bitartekoak dira, eta paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko jardunen eremuan egin beharreko ekintzak zehazten dituzte, paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta.

Paisaiaren Ekintza Planak paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko esku-hartzeetarako bitartekoak dira, eta paisaiaren katalogoetan identifikatuta eta paisaiaren zehaztapenetan jasota dauden eta paisaiaren aldetik interes berezia duten eremuetarako dira, beste eremu batzuetan lantzeko aukera baztertu gabe.

Paisaiaren Ekintza Planak arlo hori kudeatzeaz arduratzen diren organoek landu, onartu eta beteko dituzte. Nolanahi ere, Paisaiaren Ekintza Planak lantzeko prozesuan, ziurtatu egin beharko da eragile publiko eta pribatuen eta dagokien herritarren parte-hartzea.

## EDUKIA

Paisaiaren Ekintza Planak eduki hauek izango ditu, gutxienez:

a) Diagnostikoa. Udal Bulegoetan kontsulta daiteke. Nolanahi ere, aurrerakin gisa kontsideratu behar da, ez behin behinekoa, ez du eta dagokion parte-hartze prozesua pasa eta.

b) Lortu nahi diren paisaia-kalitatearen helburuak eta espero diren onurak (sozialak, kulturalak, paisaia-arlokoak, etab.).

c) Jardun-programa. Jarritako helburuak eta onurak bermatzeko behar diren ekintza zehatzen

trimonio de las Administraciones Públicas.

- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El Decreto identifica los instrumentos para la protección, gestión y ordenación del paisaje: a) Catálogos del paisaje, b) Las Determinaciones del paisaje. c) Los Planes de acción del paisaje. d) Los Estudios de integración paisajística.

Planes de acción del paisaje son las herramientas de gestión que, basándose en los Catálogos del paisaje y en las Determinaciones del paisaje, concretan las acciones a llevar a cabo en el marco de las actuaciones para la protección, la gestión y la ordenación del paisaje.

Los Planes de acción del paisaje se configuran como instrumentos de intervención para la protección, gestión y ordenación del paisaje para las áreas de especial interés paisajístico identificadas en los catálogos del paisaje y recogidas en las Determinaciones del paisaje, sin descartar que puedan elaborarse en otros ámbitos.

Los Planes de acción del paisaje serán elaborados, aprobados y ejecutados por los órganos encargados de la gestión del ámbito. En todo caso, se habrá de asegurar la participación de los agentes públicos y privados y de la ciudadanía afectada en el proceso de elaboración de los Planes de acción del paisaje.

## CONTENIDO

Los Planes de acción del paisaje contendrán como mínimo:

a) El diagnóstico. Se podrá consultar en las Oficinas Municipales. Debe considerarse preliminar, ya que no ha sido sometido a un proceso de participación.

b) Los objetivos de calidad paisajística que se persiguen (sociales, culturales, paisajísticos, etc.).

c) Programa de Acción. Descripción literaria y gráfica de las acciones concretas para lograr los

deskribapen literario eta grafikoa. Jarduketen kronograma globala eta haien kostu aurreikusia.

METODOLOGIA

**Diagnostikoa:** Paisaiaren Ekintza Planak kontuan hartu beharko du, eta behar den guztian egokitu, udal Bulegoetan kontsulta daitekeen Diagnostikoa, dagokion parte-hartze prozesuan aztertu eta gero.

**Ekintza-plana. Herritarren parte-hartzea**: Eranskineko diagnostikoa behin behinekotzat hartzeko eta gainerako urratsak emateko, parte-hartze eta komunikazio foro bat osatuko da herriko eragile zein interesatuekin. Foro horren osaketa Zestoako Udalarekin batera adostuko da, baina parte-hartze prozesuak, gutxienez, honako eragile edo erakundeen iritzia kontuan hartu beharko du:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia.
b) Zestoako Udala.
c) Herritarrak, oro har, eta Planaren eremuarekin lotura daukaten herritarrak bereziki.
d) Herriko eragileak.

Parte-hartze prozesuan erabiliko diren baliabideak, besteak beste, hauek izango dira:

a) Inkestak / tailerrak.
b) Lan-saioak.
c) Parte-hartzea webgune eta foro sozialen bitartez.

Foro horretan herriko zementugintzak eta horrekin lotura daukaten gainerako jarduerek utzitako paisaiari buruz herritarrek dituzten iritziak jasoko dira eta ekipo teknikoak egindako lanarekin alderatu, denen artean Ekintza Plana idazteko elementuak mahaigaineratuz.

Ondoren, lortu nahi diren **paisaia-kalitatearen helburuak eta espero diren onurak** (sozialak, kulturalak, paisaia-arlokoak, etab.) zehaztuko dira. Halaber, finkatuko dira helburu espezifikoak, programak eta ekintzak. Helburuei

objetivos y mejoras descritas en el plan. Cronograma y coste previsto.

METODOLOGÍA

**Diagnóstico:** El Plan de Acción del Paisaje deberá tener en cuenta, con modificaciones, si procede, el Diagnóstico obrante en las Oficinas Municipales, tras ser sometido al correspondiente proceso de participación.

**Plan de acción.** Participación vecinal: Para dar carácter definitivo al Diagnóstico obrante en las Oficinas Municipales y para los siguientes pasos, deberá crearse un foro de participación y comunicación con agentes e interesados-as del municipio. La composición del Foro deberá ser consensuado con el Ayuntamiento de Zestoa y deberá contar, al menos, con la participación de los siguientes agentes o instituciones:

a) Diputación Foral de Gipuzkoa.
b) Ayuntamiento de Zestoa.
c) Vecindario, en general, y particularmente las personas o colectivos vinculados con el Plan.
d) Agentes del municipio.

Entre los recursos a utilizar en el proceso de participación cabe destacar, entre otros:

a) Encuestas / talleres.
b) Sesiones de trabajo.
c) Participación a través de la web y foros sociales.

En el proceso de participación se recogerán las opiniones de los-las participantes en torno al paisaje generado por la industria del cemento en el municipio, así como por las actividades asociadas al mismo. Estas opiniones serán contrastadas con las del equipo técnico y ofrecerán los elementos para la redacción del Plan.

A continuación, se especificarán **los objetivos de calidad paisajística que se persiguen** (sociales, culturales, paisajísticos, etc.). Así mismo, se establecerán los objetivos específicos, los programas y las acciones. Por lo que respecta a los objetivos, se centrarán en la situación del

dagokionez, aztertutako paisaiaren egoeran, eraldatze dinamiketan eta eremu bakoitzaren izaeran oinarrituko dira. Bestalde, planteamenduek Euskadiko paisaia kalitate helburuekin bat etorri behar dute. Azkenik, helburuak argiak, ulergarriak eta ahal den neurrian kartografiara eramateko modukoak behar dute.

**Ekintza Plana. Ekintzak definitzea. Jarduketa-programa**: Aurreko fasean zehaztutako helburuak lortzeko, beharrezkoa izango da ekintza zehatzak eta jarduera-programa zehaztea. Jardueratzat, proposamentzat edo ekintzatzat hartuko da arazo bat konponduko duen edo aukera aprobetxatuko duen edozein neurri. Zentzu horretan, proposatuko diren neurri guztiak Planaren helburuekin koherenteak izango dira, eta konpetentziari, ekonomia-finantzei eta kudeaketari dagokienean bideragarriak.

Ekintzak, besteak beste, fitxa eta kartografia bidez aurkeztuko dira, eta gutxienez honako atalak landuko dira:

a) Helburuak, justifikazioa, oinarriak.
b) Kokapena.
c) Garapena. Ekintza edo jardueren deskribapena.
d) Egutegia edo kronograma.
e) Lehentasuna.
f) Giza baliabideak eta materialak.
g) Kostua eta finantzazioa.
h) Arduraduna.
i) Ebaluaziorako adierazleak (kuantitatibo zein kualitatiboak).

## LANAK AURKEZTEKO ERA

Paisaiaren Ekintza Plana paperean eta euskarri informatikoan aurkeztuko da.

## HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratua lortzen duenak Zestoako Udaleko

paisaje objeto de estudio, en las dinámicas de transformación y en el carácter de cada una de las zonas. Los planteamientos deben ser acordes a los objetivos de calidad paisajística de Euskadi. Finalmente, los objetivos deben ser claros, inteligibles y, en la medida de lo posible, susceptibles de ser cartografiados.

**Plan de Acción. Definición de acciones. Programa de actividades.** Para la consecución de los objetivos de la fase previa, será necesaria la definición de actuaciones y programas de actividades concretos. Se entenderá por actividad, propuesta o acción cualquier medida tendente a resolver algunas de las problemáticas detectadas. En ese sentido, todas las medidas propuestas deberán ser coherentes con los objetivos del Plan y viables en cuanto a competencia, finanzas y gestión.

La acciones se presentarán, como mínimo, en fichas y cartografía y contemplarán al menos los siguientes extremos:

a) Objetivos, justificación, bases.
b) Situación geográfica.
c) Desarrollo. Descripción de acciones y actividades.
d) Calendario o cronograma.
e) Prioridades.
f) Recursos humanos y materiales.
g) Coste y financiación.
h) Responsable.
i) Indicadores de evaluación (cuantitativos y cualitativos).

## PRESENTACIÓN DE TRABAJOS

El Plan de Acción del Paisaje se entregará en papel y soporte informático.

## CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

El adjudicatario-a deberá cumplir los criterios lingüísticos del Ayuntamiento de Zestoa:

a) El Plan de Acción del Paisaje del Ce-

hizkuntza irizpideak bete beharko ditu:

a) Zestoako zementugintzari buruzko Paisaiaren Ekintza Plana euskaraz eta gazteleraz aurkeztuko da.

b) Zestoako Udalarekin eta herritarrekin izango diren harremanak euskaraz izango dira, eta talderen batean euskara ulertzen ez duen inor balego, euskara alboratu gabe, pertsona horrek saioa jarraitu ahal izateko bideak jarriko dira martxan.

c) Interneteko argitalpenetan –blog, webgune eta sare sozialeko profiletan– euskara erabiliko da eta bereziki zainduko da hizkuntzaren kalitatea.

d) Kartelak, abisuak, oharrak, publizitatea... egiterakoan hizkuntza bat baino gehiago erabili behar den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.

Irizpide horien aplikazioak ezingo du, inolaz ere, herritarren hizkuntz eskubideak urratu. Zestoako Udalak ikuskatu ahal izango du aurreko baldintzen betetze maila. Zehaztutakoak betetzen ez badira, esleipendunak euskararen erabilerarako irizpideak adostu beharko ditu Zestoako Udalarekin.

## KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak sinatzen den egunaren biharamunetik hasita Paisaiaren Ekintza Planari dagozkion lanak bukatu arte izango da. Aurreikusitako daten arabera, epea 2020ko azaroaren 12era artekoa izango da, eta ez da luzatzeko aukerarik egongo.

## LANTALDEA

Esleipendunak lana egoki exekutatzeko beharrezkoa den pertsonala izango du. Hori egiaztatzeko, proposamenean zehaztuko du Ekintza Plana egiten parte hartuko duen lantaldea, eta beren ezagutzak, besteak beste, ingurumen, zuzenbide, administrazio, hirigintza eta kultura arloetan.

Zentzu horretan, lizitatzaileek lantaldeko pertsona bakoitzaren datu pertsonalak eta

mento en Zestoa deberá ser presentado en euskara y cestellano.

b) La relación con el Ayuntamiento de Zestoa y los vecinos-as será en euskara, y en el caso de que en algún grupo hubiera alguien que no conociera la lengua, se establecerán, sin relegar el euskara, los mecanismos para que esas personas puedan participar.

c) En Internet –blog, web y redes sociales– se utilizará el euskara y se cuidará especialmente la calidad lingüística.

d) En la confección de carteles, avisos, notas, publicidad… si ha de emplearse más de un idioma, se dará prioridad al euskara en tamaño, color y posicionamiento.

La aplicación de esos criterios no podrá, en ningún caso, vulnerar los derechos lingüísticos del vecindario. El Ayuntamiento de Zestoa podrá comprobar el cumplimiento de las condiciones antedichas. Si no se cumplieren, el adujudicatario-a deberá consensuar los criterios ligüísticos con el Ayuntamiento de Zestoa.

## DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del contrato comenzará al día siguiente de la formalización del contrato y finalizará con la conclusión de los trabajos del Plan de Acción del Paisaje. En cualquier caso, la fecha prevista de finalización en el 12 de noviembre de 2020 y no se contemplan aplazamientos.

## EQUIPO DE TRABAJO

La persona adjudicataria deberá contar con un equipo técnico capaz de ejecutar el trabajo con calidad. Para acredidarlo, la persona física o jurídica licitadora deberá detallar en su oferta los elementos y personal con los que cuenta para la realización de la totalidad de los trabajos objeto del presente pliego. Para llevar a cabo la ejecución de los trabajos objeto del presente pliego se requieren conocimientos ambientales, jurídicos, administrativos, urbanísticos y culturales.

Los licitadores propondrán el equipo técnico preciso que va a realizar los trabajos, acompaña-

erreferentziak aurkeztuko dituzte. Edozein modutara ere, Zestoako zementugintzaren paisaiaren ezaugarri bereziak direla medio, industria-ondarean aditua den unibertsitate tituludun pertsona bat egon beharko du, gutxienez, lantaldean. Halaber, lanak egiteko epeak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da taldeko baten batek Paisaia Ekintza Plan baten (idatzia edo idazteko prozesuan) lantaldean parte hartu izana.

Inola ere ez da ulertuko langile horiek Zestoako Udaleko pertsonalaren parte direla, ezta udalarekiko dependentzia funtzional, kontratupeko, laneko edo organikoa dutenik ere.

Esleipendun enpresak langileak Gizarte Segurantzan behar bezala altan izateko konpromisoa hartuko du, eta legezkoak diren eta kontratuak ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko ditu. Horrela bada, Gizarte aseguruen ordainketak egunean dituelako egiaztagiriak Zestoako Udalean aurkeztu beharko ditu.

do de los datos personales y referencias que permitan juzgar su preparación y experiencia. En cualquier caso, teniendo en cuanta las características especiales del paisaje cemento de Zestoa, deberá participar, como mínimo, una persona titulada universitaria especializada en patrimonio industrial. Así mismo, teniendo en cuenta los plazos para la finalización del Plan, se considera conveniente que algún miembro del equipo haya formado parte con anterioridad en la elaboración (redactado o en redacción) de un Plan de Acción del Paisaje.

En ningún caso se entenderá que el equipo técnico mencionado sea parte del Ayuntamiento de Zestoa, ni que tenga algún tipo de dependencia funcional, contractual, de trabajo u orgánico.

El adjudicatario-a se comprometerá a dar de alta a todo el equipo de trabajo en la Seguridad Social y ha cumplir todos los requisitos legales de contratación. Deberá presentar en el Ayuntamiento de Zestoa certificado de estar al día en los pagos a la Seguridad Social.

## ERANTZUKIZUNA, SEGURTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenduna da lanen kalitate teknikoaren erantzule, baita Paisaiaren Ekintza Plan horrek, zerbait jaso gabe utzi duelako, akatsen bat duelako, metodologia desegokia erabili duelako edota ondorio okerretara iritsi delako, Udalari edo hirugarrengoei eragin diezazkiokeen ondorioen erantzule ere.

Esleipendunak ezingo du kontratatutako lanaren daturik beretzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere, eta ezingo ditu lanaren edukiak ez osorik ez partzialki argitaratu. Udalak izango du lanaren jabetza intelektuala eta lana erabiltzeko eskubidea.

Esleipendunak erabiltzen dituen datu edo dokumentuekiko konfidentzialtasuna bermatu beharko du. Datu horiek erabili ahal izango dituzte, bakarrik, Paiasaiaren Ekintza Plana egiteko nahitaez behar dituzten pertsonek. Pertsona horiei denei ohartarazi egin beharko zaia informazioa erreserbatua eta konfidentziala izan behar duela.

Paisaiaren Ekintza Plana egiteko

## RESPONSABILIDAD, SEGURIDAD Y CONFIDENCIALIDAD

La persona adjudicataria se responsabilizará de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones que realice, así como de las consecuencias que se deduzcan para el Ayuntamiento o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

La persona adjudicataria no podrá utilizar los datos del trabajo contratado para uso personal, ni cederlos a una tercera persona, ni podrá publicar el contenido del trabajo total o parcialmente. La propiedad intelectual y el derecho al uso del trabajo quedará en manos del Ayuntamiento.

La persona adjudicataria estará obligado a mantener la más absoluta confidencialidad y reserva de todos aquellos datos y documentos que maneja. A estos tendrán acceso, exclusivamente, aquellas personas estrictamente imprescindibles para el desarrollo del Plan de Acción del Paisaje. Todas ellas serán advertidas del carácter confidencial y reservado de la información.

Todos los ficheros que se pongan a disposición

ZESTOAKO UDALA

esleipendunaren zerbitzura jarriko diren datutegien jabea Zestoako Udala izango da eta indarrean dauden legeen, batez ere datu pertsonalen babeserako legeen, menpe daude.

## ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Udal Zerbitzu Teknikoek uneoro lan desberdinak zer moduz egiten diren ikuskatuko dute, eta esleipendun enpresarekin komunikazio bide egonkorrak eta errazak izango dituzte. Halaber, esleipendunari harremana norekin izango duten jakinaraziko diote. Ikuskaritza-zerbitzua egiteko izendatutako teknikarien eskumenak ondorengoak izango dira: a) Lanak era egokian eta aurreikusitako eran egiten diren jarraipena egitea. b) Baldintza Plegu honetan ezarritakoa betetzen  dela ziurtatzea.

## BERMEA

Paisaia Ekintza Plana idatzi eta entregatu ondoren, urtebeteko berme-epea ezarriko da. Epe horretan esleipenduna izango da Ekintza Planean edota eskainitako zerbitzuan akatsik nabariko balitz. Epe hori inolako gorabeherarik gabe pasako balitz esleipendunaren erantzukizuna bertan behera geratuko litzateke eta fidantza itzuli egingo da.

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

Esleitzeko erabiliko diren balorazio irizpideak Baldintza Administratibo Partikularretan ezarritakoak izango dira.

del personal de la empresa, para la ejecución del Plan de Acción del Paisaje son propiedad del Ayuntamiento y están registrados y sometidos a la salvaguarda que establece la legislación vigente, en especial la relativa a la protección de datos personales (LOPD).

## SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DE LOS TRABAJOS

Los Servicios Técnicos Municipales podrán, en cualquier momento, hacer seguimiento del desarrollo de los trabajos y establecerá mecanismos de comunicación ágiles y estables para ello con la persona adjudicataria. A su vez, se notificará a esta quién será el interlocutor-a municipal. Las competencias del técnico-a desgnado-a para el seguimiento de los trabajos serán: a) Realizar seguimiento de que los trabajos se están realizando de la forma prevista. b) Asegurar el cumplimiento de lo referido en las Prescripciones.

## GARANTÍA

Una vez redactado y entregado el Plan de Acción del Paisaje, se establecerá un plazo de garantía de un año. Durante este plazo de garantía la persona adjudicataria será responsable por los defectos que puedan manifestarse en los trabajos o prestaciones realizadas. Transcurrido dicho plazo sin objeciones, quedará extinguida la responsabilidad de la fianza y se procederá a devolver la misma.

## CRITERIOS DE VALORACIÓN

Los criterios de adjudicación serán los establecidos en los correspondientes Pliegos Administrativos.

Zestoan, 2020ko martxoaren 12an
En Zestoa, a 12 de marzo de 2020

Sinadura / Firma